

## 2008KO LAN-POLTSAK

# EPIDEMIOLOGIAKO ESKALA

**A EREDUA**

**2008/10/10**

**9:30**

## ARIKETA TEORIKOA

### 1 **NOLAKO LEGEA DA EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ESTATUTUKO 3/1979 LEGEA?**

- 1a) Lege organikoa.
- 1b) Lege armonizatzailea.
- 1c) Oinarriak arautzeko legea.
- 1d) Gorte Nagusietako lege arrunta.

### 2 **AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL HERRIKO BOTEREAK HAUEN BITARTEZ ERABILIKO DIRA:**

- 2a) Autonomia-erkidegoko lurralde historikoen bitartez.
- 2b) Autonomia-erkidegoko lurralde historikoen eta Eusko Legebiltzarraren bitartez.
- 2c) Eusko Jaurlaritzaren eta lehendakariaren bitartez.
- 2d) Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren edo lehendakariaren bitartez.

### 3 **ONDORENGO BAT EZ DA ADMISTRAZIOAREN JARDUERAREN PRINTZIBIO BAT, ZEIN?**

- 3a) Eraginkortasuna.
- 3b) Ekonomia.
- 3c) Deskontzentrazioa.
- 3d) Hierarkia.

### 4 **EKONOMIA- ETA GIZARTE- INTERESEN ORDEZKARI DIREN ELKARTE ETA ANTOLAKUNDEAK INSTERESDUN JOKO DIRA ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN:**

- 4a) Bidezko talde-interesen titularrak direnean, legeak aitortutako moduan.
- 4b) Bidezko talde-interesen titularrak direnean, legeak aitortutako moduan, eta estatutuetan hala jasota dutenean.
- 4c) Bidezko interesen titularrak direnean, estatutuetan hala jasota dutenean eta agintari eskudunak hala onartzen duenean.
- 4d) Elkarteak eta antolakundeak talde-interesen titular izan daitezke, baina ez dute legitimazio aktiborik legeak ematen ez badie.

### 5 **EGINTZA ADMINISTRATIVO BATEN JAKINARAZPENAK EDUKI BEHARKO DU...**

- 5a) Egintzak zein egunetatik duen indarra.
- 5b) Errekurtsoak zein organori aurkez dakizkiokeen.
- 5c) Egintza eman zuen organoa nork osatzen duen, kide anitzekoa denean.
- 5d) Egintza eman zuen kide anitzeko organoko buruaren identifikazioa.

### 6 **NOLA EGIN BEHAR DIRA ADMINISTRAZIO-EGINTZAK?**

- 6a) Egintzaren izaeraren arabera dagokion modurik onenean.
- 6b) Ahoz zein idatziz, hartzaileak eskatutakoaren arabera.
- 6c) Idatziz egin behar dira; hala ere, beste era egokiagoren batean adierazi eta jaso daitezke ere, egintzaren izaerak hala eskatzen edo horretarako bide ematen duenean
- 6d) Ahoz, eta egintza idatziz jasoz.

**7 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA. FUNTZIONARIOEK EZ DUTE ESKUBIDERIK:**

- 7a) Betetzen duten lanpostuaren arabera eta gizarte-segurantzian dagokien araubidearen arabera ordainsaria jasotzeko.
- 7b) Etenik gabeko lanbide-gaikuntza jasotzeko.
- 7c) Beren hurbileneko nagusien eskutik informazioa jasotzeko, ez funtzionario bakoitzaren administrazio-taldearen helburuei, ez antolaketari, ez funtzionamenduari buruz.
- 7d) Ez funtzionario bakoitzak bere espedienteak ez beste edozein funtzionariorenak askatasunez ezagutzeko eta espedienteotara iristeko ere.

**8 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEA. ZEIN EGOERATAN EGONGO DIRA EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIOAK, NAZIOARTEKO EDO NAZIOZ GAINEKO ERAKUNDEETAKO FUNTZIONARIO IZATEA LORTZEN DUTENEAN?**

- 8a) Jardunean.
- 8b) Egiteko ez gabetuta.
- 8c) Pizgarririk gabeko borondatezko eszedentzian.
- 8d) Zerbitzu berezietan.

**9 4/2005 LEGEAREN ONDORIOETARAKO, SEXU BIEK ZENBATEKO ORDEZKARITZA IZAN BEHARKO DUTE GUTXIENEZ, PERTSONA ANITZEKO ADMINISTRAZIO-ORGANOETAN ORDEZKARITZA OREKATUTZAT JOTZEKO?**

- 9a) %35ekoa
- 9b) %40ekoa
- 9c) %45ekoa
- 9d) %50ekoa

**10 ONDORENGO HAUETATIK, ZEIN DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EUSKAL HERRI-AGINTEEN JARDUKETA GIDATU ETA BIDERATUKO DUEN PRINTZIPIO OROKORRA?**

- 10a) Aukera-berdintasuna.
- 10b) Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea.
- 10c) Genero-ikuspegia integratzea.
- 10d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**11 ULERTZEN DA IKERKETAKO PROIEKTU BATEN DISEINUAN HAU ERE SARTZEN DELA:**

- 11a) Azterketako elementuen justifikazioa: hipotesia  
11b) Azterketako protokoloa  
11c) Eragiketen eskuliburua edo jarduketako protokoloak  
11d) Horiek guztiak egiazkoak dira
- 12 IKERKETA KLINIKOAREN BALIOA SINESGARRITASUN ZIENTIFIKOAREN MENDE DAGO, HAU DA:**
- 12a) Mediko klinikoek onartua ahal izan behar du  
12b) Beste ikertzaile batzuek onartua ahal izan behar du  
12c) Diseinuaren indarra eta betearazpena  
12d) Guztiak egiazkoak dira
- 13 IKERKETA TRANSLAZIONALA, BATIK BAT, HONETAN OINARRITZEN DA:**
- 13a) Laborategiaren (oinarrizko ikerketako) laborategiko ikerketako aurkikuntzak pazienteen azterketa klinikoetan aplikatzean  
13b) Azterketa kliniko horien emaitzak erkidegoko osasun-praktikak aldatzeko aplikatzean  
13c) Aurkikuntza horiek gaixotasunen kausazko ikerketan aplikatzean.  
13d) a) eta b) egiazkoak dira
- 14 ONDORENGO ESTRATEGIETATIK, ZEIN EZ DA EGOKIA ZEHAZTASUNA HANDITZEKO ASMOZ LAGINKETAKO ERROREA MURRIZTEKO?**
- 14a) Laginaren tamaina handitzea  
14b) Neurketako tresna hobetzea eta fintzea  
14c) Neurria edo informazio-bilketa errepikatzea  
14d) Informazio-bilketako edo neurketako metodoak *ad hoc* eskuliburu batean protokolizatzea
- 15 ARTIKULU ZIENTIFIKO BATEAN PLANTEATZEN DEN EZTABAIDAN:**
- 15a) Azterlanaren emaitza nagusiak berrikusi behar dira, literaturarekiko antzekotasunen eta aldean inguruan  
15b) Azterlanaren indarguneak eta mugak berrikusi behar dira  
15c) Posible bada, osasuneko praktika mediko edo politikorako inplikazioak eztabaidatu behar dira  
15d) a, b eta c egiazkoak dira
- 16 AZTERLAN BATEN DATUEN KALITATEA SEGURTATZEA, HAINBAT PROZEDURAREN BIDEZ GAUZATZEN DA:**
- 16a) Informazio-bilketa estandarizatzea, eta, beraz, erroreak minimizatzea  
16b) Azterlanean sartzen diren banakoen edo proben kopurua  
16c) Azterlana abian jarri aurretik, azterlanak eta proba pilotuak egitea  
16d) a eta c egiazkoak dira
- 17 GERTAERA BATEN ODDS-A 1:9 BADA, ZEIN DA PROBABILITATEA?**
- 17a) 10  
17b) 0,1  
17c) 0,9  
17d) 90

- 18 GAIXOTASUN BATEN AGERPENEAN FAKTORE JAKIN BATEN ARRISKUA ZENBATETSI NAHI DUEN SEGIMENDUKO AZTERLAN BATEAN, TABAKOA FAKTORE NAHASGARRIA IZAN ZITEKEELA ERABAKI ZEN. AUKERATU, ONDORENGO HAUETATIK, KASURAKO ANALISIKO TEKNIKARIK EGOKIENA**
- 18a) Diseinu parekatua
  - 18b) Diseinu alternoa
  - 18c) Analisi geruzatua
  - 18d) Bariantzaren analisia
- 19 ONDORENGOETATIK, AUKERATU CHI KARRATUAREN EMAITZA ESANGURATSU BATEKIN BATERAGARRIA DEN ODDS RATIOAREN KONFIANTZA-TARTEA**
- 19a) 0,1 – 10
  - 19b) 0,1 – 0,9
  - 19c) 0,4 – 1,2
  - 19d) 0,9 - 9
- 20 ZER DA SEGIMENDUKO AZTERLAN BATEAN SARTZEN DEN ERREGRESIO LOGISTIKOAREN ANALISIA, HAINBAT FAKTORE NAHASGARRIEN EXISTENTZIA SUPOSATZEN BADA?**
- 20a) Nahasketa kontrolatzeko diseinuko teknika bat da
  - 20b) Mendeko aldagaia kuantitatiboa denean bakarrik sar daiteke
  - 20c) Analisiko faktore nahasgarriak kontrolatzea errazten du
  - 20d) Azterlan geruzatuetan bakarrik sar daiteke
- 21 BAHEKETA (SCREENING) BAT EGITEKO % 90 ETA % 80KO SENTIKORTASUNEN PROBA (TEST) SERIEAN APLIKATZEN BADITUGU, ZEIN IZANGO DA ONDORIOZKO SENTIKORTASUNA?**
- 21a) % 72
  - 21b) % 85
  - 21c) % 90
  - 21d) % 98
- 22 EPIDEMIOLOGIARI DAGOKIONEZ, EGIAZKOA DA:**
- 22a) Zientzia biologikoa da, batik bat; soziala baino biologikoagoa
  - 22b) Fenomeno epidemiologikoak aztertzen ditu adierarik murriztuenean
  - 22c) Lehen etorkia soil-soilik infektiosoa eta organikoa da
  - 22d) Metodologia osasun-arazo gutxi batzuen ikerketara orientaturik dago
- 23 BIZTANLERIA BATEAN AGERTZEN DIREN GAIXOTASUN-KASUEN KOPURUAREN ETA BIZTANLERIAREN TAMAINAREN ARTEKO ZATIDURA, ZEIN KONTZEPTU MATEMATIKORI DAGOKIO?**
- 23a) Proportzioari
  - 23b) Arrazoiari
  - 23c) Tasari
  - 23d) Dentsitateari

**24 GAIXOTASUN BATEN PREBALENTZIA, ZEHAZKI ZER KONTZEPTU MATEMATIKORI DAGOKIO?**

- 24a) Dentsitateari
- 24b) Proporzioari
- 24c) Arrazoiari
- 24d) Tasari

**25 ZER KONTZEPTU MATEMATIKORI DAGOKIO INTZIDENTZIAREN DENTSITATEA?**

- 25a) Portzentajeari
- 25b) Proporzioari
- 25c) Arrazoiari
- 25d) Probabilitateari

**26 GAIXOTASUN BATEK TALDE BATEAN DUEN MAIZTASUNA ADIERAZTEKO, SEGIMENDUKO ALDIA EZ BADA BERDINA SUBJEKTU GUZTIENTZAT, ZER ERABILTZEN DA?**

- 26a) Prebalentzia
- 26b) Intzidentzia metatua
- 26c) Intzidentziaren dentsitatea
- 26d) Arrisku erlatiboa

**27 ARRISKU EGOZGARRIAREN ETA ARRISKUPEKOETAN DUEN INTZIDENTZIAREN ARTEKO ZATIDURA, ZEIN IZENEZ EZAGUTZEN DA?**

- 27a) Arrisku erlatiboa
- 27b) Arrisku-gehiegia
- 27c) Arrisku egozgarriaren proporzioa
- 27d) Odds ratioa

**28 ESTANDARIZAZIO ZUZENEOA. ZER ERRAZTEN DU METODO HORREK?**

- 28a) Batez bestekoa zero izatea
- 28b) Biztanlerien konparazioa
- 28c) Itxarondako kasuen kalkulua
- 28d) Desbiderapena bat izatea

**29 KAUSA-IZAERAKO AZTERLAN EPIDEMIOLOGIKOETAKO SENDOTASUNA, ZERI DAGOKIO?**

- 29a) Beste azterlan batzuen emaitzekin duten antzekotasunari
- 29b) Efectua igotzea dosia igotzerakoan
- 29c) Arrisku-faktorearen eta gaixotasunaren arteko erlazio unibokoa
- 29d) Aurrekoetako bati ere ez.

**30 ONDORENGO BALDINTZEN ARTETIK, AUKERATU AZTERLANEK BETE BEHAR DUTEN BESTE BALDINTZA BAT, ARRISKU-FAKTORE BAT AGENTE KAUSALA DELA PROBATU NAHI DUTENEAN; INDARRA ERAKUSTEN DUTE ELKARKETAN ETA SENDOTASUNA BESTE AZTERLAN BATZUEKIN**

- 30a) Esangura estatistikoa
- 30b) Beste azterlan batzuen antzeko emaitzak
- 30c) Batetik gorako frakzio etiologikoa
- 30d) Gradientek

**31 KOMUNITATE-OSASUNEAN, AZTERLAN EPIDEMIOLOGIKOekin BILATZEN DIREN HELBURUAK DIRA:**

- 31a) Osasuneko diagnostikoa biztanlerian
- 31b) Metodoen ebaluazioa diagnostikoan eta tratamenduan
- 31c) Probabilitateak eta arriskuak ezartzea
- 31d) Horiek guztiak

**32 TEST BATEN SENTIKORTASUNA, ZERI DAGOKIO?**

- 32a) Erreakzio positiboko gaitasuna gaixotasuna agertzen denean
- 32b) Erreakziorik eza gaixotasunik ez dagoenean
- 32c) Objektibotasuna
- 32d) Onargarritasuna

**33 5.000 EMAKUMEREN BAHEKETA BATEAN, AURKITU ZEN HAIETATIK 25EK BULARREKO MINBIZIA ZUTELA?**

- 33a) Intzidentzia 1000ko 5ekoa da
- 33b) Intzidentzia metatua 1000ko 5ekoa da
- 33c) Intzidentzia-tasa 0,005 da
- 33d) Prebalentzia 1000ko 5ekoa da.

**34 ONDORENGOEN ARTEAN, AUKERATU ATZERA BEGIRAKO AZTERLAN BATI DAGOKIONA**

- 34a) Kontrol kasuak
- 34b) Saio klinikoa
- 34c) Saiakuntzako azterlana
- 34d) Azterlan bikoitz itsua

**35 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AZKENEKO OSASUN-INKESTAN, BI GALDERA-SORTA ERABILI ZIREN:**

- 35a) Banakakoa eta biztanleriakoa
- 35b) Kolektiboa eta biztanleriakoa
- 35c) Lehen etapakoa eta sekundarioa
- 35d) Banakakoa eta familiakoa

**36 ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA GAIXOTASUN MENINGOKOZIKOAREN INGURUAN:**

- 36a) *Neisseria meningitidis* polisakarido kapsularraren bidez sailkatzen, eta 100 serotalde identifikatutik gora daude
- 36b) Listuz kutsaturiko gauzakien, adibidez edontzi edo botilen, bidezko gaixotasun meningokozikoaren transmisio-bideak garrantzi epidemiologiko handia du, eta oso ohikoa da
- 36c) EAEn indarrean dauden protokoloetan, laborategiko irizpidetzat hartzen da meningokozikoaren DNAREN presentzia edo antigenoarena (gernuan, odolean edo LCRen)
- 36d) Erantzun guztiak zuzenak dira

**37 LISTERIA MONOCYTOGENES DELAKOARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ERANTZUN OKORREKOA:**

- 37a) Infekzio nosokomialeko kasuak deskribatu dira
- 37b) Hozketarako tenperaturetara haz daiteke
- 37c) Batez besteko inkubazio-aldia aste 1ekoa izaten da
- 37d) Epidemiologikoki, "delicatessen" deituriko produktuekin erlazionatzen da

**38 TUBERKULINAREN PROBARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI GEZURREZKO ERANTZUNA:**

- 38a) Tuberkulosia diagnostikatzeko erabiltzen da
- 38b) Tuberkulosiko gaixoein harremanetan egon diren pertsonengan erabiltzen da
- 38c) Tuberkulosiarekin bateragarriak diren sintomak dauzkaten pertsonekin ere erabil daiteke.
- 38d) Ez da erabili behar irizpide diagnostiko bakartzat

**39 AZTERLAN EPIDEMIOLOGIKO ASKOK ERAGIN SINERGIKOA AURKITU DUTE TABAKOAREKIKO ETA BESTE SUBSTANTZIA BATZUEKIKO ALDI BEREKO ESPOSIZIOAREN AURREAN. SUBSTANTZIA HORIEN ARTEAN DAUDE:**

- 39a) Silize-hautsa
- 39b) Ikatz-hautsa
- 39c) Kotoi-hautsa
- 39d) Guztiak egiazkoak dira

**40 ISTRIPUZKO LESIOEI DAGOKIENEZ:**

- 40a) Heriotza-kausarik handiena dira EAEn
- 40b) Haur-istripu gehienak kalean edo eskolan gertatzen dira
- 40c) Haur-istripurik ohikoenak erorikoak eta kolpeak dira
- 40d) Haur-istripurik ohikoenak sendagaiak eraginiko intoxikazioak dira

**41 ONDORENGO GORABEHERETATIK, ZEINETAN IZANGO LITZATEKE GOMENDAGARRIA, PRINTZIOZ, GRIPEAREN KONTRAKO TXERTO EZ-AKTIBATUAREKIN EZ TXERTATZEA?**

- 41a) Tratamendu antibiotikoa
- 41b) Edoskitze naturala
- 41c) S. Guillén-Barré-ren aurrekariak
- 41d) Oilo-hazitegietan lan egiten duten pertsonak

**42 EAE-N TUMOREEK ERAGINIKO HERIOTZA-TASARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA:**

- 42a) Lehen tokia betetzen dute heriotza-kausa gisa.
- 42b) Emakumeetan, ohikoena bularrekkoa da
- 42c) Gizonetan, ohikoena birrikakoa da
- 42d) Ondesteko tumorearen multzoak bigarren tokia betetzen du



**43 XX. MENDETIK GAUR ARTE, GIZAKIEN ARTEAN IRAUNIKO INFEKZIOAREKIN LOTU DIREN GRIPE-SUBTIPOAK HONAKO HAUEK IZAN DIRA:**

- 43a) H1N1, H2N2 y H3N2.
- 43b) H1N1, H7N7 y H5N1.
- 43c) H1N1, H3N2 y H5N1.
- 43d) H1N1, H2N2, H3N2, H7N7 eta H5N1.

**44 ZIGARROTXOEN KEAREKIKO ESPOSIZIOAREN ETA BIRIKAKO MINBIZIAREN ARTEKO ELKARKETA KAUSALA DA, ZEREN ETA:**

- 44a) Arrisku Erelatiboa altua baita (RR = 8)
- 44b) Gradiente biologikoa baitago
- 44c) Berriazkotasuna baitago tabakoaren eta birrikako minbiziaren arteko elkarketan
- 44d) a eta b bakarrik dira egiazkoak

**45 GIZA PAPILOMAREN BIRUSAREN AURKAKO TXERTOARI DAGOKIONEZ, EGIAZKOA DA:**

- 45a) Gizonezkoetan duen eraginkortasuna emakumeetan duenaren berdina dela, baina eragin sekundario gehiagorekin
- 45b) Ingeniaritza genetikoaz sorturiko txerto ez-aktibatua bat dela
- 45c) Merkatuan dauden bi txertoak B hepatitisaren aurkako txertoarekin administratu daitezkeela
- 45d) Txerto honen "babes klinikoko seriko subrogatuak parametroa" deritzana ezezaguna dela.

**46 BULARREKO HAURRETATIK, ZER PORTZENTAJE AURRERATZEN DA HEPATITIS KRONIKO BATERA B HEPATITISAREN BIRUSAK INFEKTATURIKOEN ARTEAN?**

- 46a) % 10etik behera
- 46b) % 15-25 artean
- 46c) Gutxi gorabehera % 50
- 46d) % 70 eta % 90 artean

**47 ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA DIFTERIAREN EPIDEMIOLOGIARI DAGOKIONEZ:**

- 47a) Gaixotasuna gaixoetatik eta eramaileetatik kutsatzen da.
- 47b) Penizilina tratamendu ona da oraindik
- 47c) Europan, agerraldi batzuk izan ziren Errusian eta SESB ohiko herrialdeetan, 90ko urteetan
- 47d) Guztiak egiazkoak dira

**48 SALMONELLAK ERAGINIKO INTOXIKAZIO-AGERRALDIAK OSO OHIKOAK DIRA. ONDORENGOETATIK, ADIERAZI ZEINEK JARDUN DEZAKETEN INFEKZIOAREN GORDAILU MODUAN:**

- 48a) Txerriek
- 48b) Txakurrek eta katuek
- 48c) Dortokek

- 48d) Aurreko guztiek
- 49 AIRE BIDEZKO GAIXOTASUNEKIN ERLAZIONATURIKO ONDORENGO MIKROORGANISMOETATIK, BATEK BAKARRIK EZ DU GIZA GORDAILURIK.**
- 49a) Arnas birus sintzitalak  
49b) Legionellak  
49c) *Neisseria meningitidis*-ak  
49d) Rinobirusak.
- 50 ADIERAZI AUKERA ZUZENA ONDORENGOEN ARTEAN, 10 URTEKO HAUR BATI GRIPEAREN KONTRAKO TXERTOIA ADMINISTRATZEKO MODUAREN INGURUAN (1 TIPO DIABETES MELLITUS-A DIAGNOSTIKATU ZAIO, ETA EZ DU GRIPEAREN KONTRAKO LEHEN TXERTAKETAREN AURREKARIK:**
- 50a) Birus zatikatuko gripearen kontrako 0,5 ml-ko dosi bat  
50b) Birus zatikatuko gripearen kontrako 0,5 ml-ko dosi bi, hilabeteko tarte batez banatuak  
50c) Birus osoko gripearen kontrako 0,5 ml-ko dosi bi, hilabeteko tarte batez banatuak  
50d) Birus osoko gripearen kontrako 0,5 ml-ko dosi bat
- 51 GRIPEARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA:**
- 51a) B tipoko birusa, *ortomyxovirus* familiakoa, da garrantzitsuena  
51b) Gaur egun, OMEren alerta pandemikoaren 3. fasean gaude  
51c) Zoonosi bat da, eta birusak animalia-gordailua du etxeko hegaztientzat  
51d) Pandemiarik gehienak, historikoki, Indian hasi dira
- 52 AZKEN ALDIAN PAROTIDITIS-AGERRALDIAK GERTATU DIRA HAINBAT AUTONOMIA-ERKIDEGOTAN, BESTEAK BESTE EAE-N. GURE INGURUAN IZAN DIREN AGERRALDI HORIEI BURUZKO BALIZKO AZALPENEN ARTEAN, ADIERAZI ERANTZUN OKERREKOA.**
- 52a) Hirukoitz birikoaren txerto-estaldura txikia 4 eta 15 urte bitartean  
52b) Hirukoitz birikoa txertoaren parotiditis osagaiaren eraginkortasun txikiagoa, % 90 ingurukoa, bi dosi txertoren ondoren  
52c) Birulentzia-gaitasun handieneko parotiditisaren birusaren andui zirkulazioa  
52d) Parotiditis osagaiaren txerto-eraginkortasunaren galera mailakatua (*waning immunity*), txertaketatik 10-12 urtera.
- 53 ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA, ELGORRIAREN AURKAKO TXERTOARI DAGOKIONEZ**
- 53a) Ez dago kontraindikaturik haurdunaldian, hirugarren hiruhilekoan izaten bada  
53b) Tronbozopenia gerta daiteke txertaketa ondorengo 2-3 hilabeteetan  
53c) Gaur egun txerto konbinatua da, eta kukutxeztularen eta errubeolaren aurkako txertoari elkartzen zaio.  
53d) Argitik gorde behar da, eta hozkailuan kontserbatu 2°C-tik behera
- 54 GAIXOTASUN TRANSMITIGARRIEN EPIDEMIOLOGIAN, ETA ERREPRODUKZIOKO OINARRIZKO TASA (RO) DERITZANARI DAGOKIONEZ, EGIAZKOA DA:**
- 54a) Biztanleria batean gertatzen diren kasu primarioen kopurua zehazten duela

- 54b) Matematikoki honela irudika daitekeela:  $R_0 = Tr$  (T=biztanleria eta r= ukipeneko tasa)  
54c) Biztanleria infektibera batean kasu primario batek eragiten dituen kasu sekundarioen kopurua zehazten duela  
54d) b eta c egiazkoak dira

**55 ADIERAZI ZER TXERTO DIREN GAUR EGUN NAHITAEZKOAK EAE-KO OSPITALEETAKO ZAINKETA INTENTSIBOETAKO UNITATEETAN LAN EGIN DUTEN OSASUN-LANGILEETAN:**

- 55a) Gripea  
55b) B hepatitis  
55c) Gripea eta B hepatitis  
55d) Aurrekoetatik bat ere ez

**56 ADIERAZI ZEIN DEN C MENINGOKOKOAREN AURKAKO UKIPEN-KIMIOFILAXIAREN INGURUAN HARTU BEHARREKO NEURRI ZUZENA:**

- 56a) Lehen aukera Errifanpizina da, urte 1etik beherako haurretan izan ezik  
56b) Ziprofloxazinoa dosi baxutan erabiltzea, 15 urte arte  
56c) Ziplofoxaziloa alternatiba ona da ahozko antisorgailuak erabiltzen dituzten emakumeetan  
56d) Kimioprofilaxia eraginkorra da kasu indizearekin izaniko ukipenetik hiru aste igarotzen diren arte

**57 GAIXOTASUN KARDIOBASKULARREI DAGOKIENEZ, GEZURREZKO DA:**

- 57a) Kardiopatia iskemikoa da heriotza-kausa nagusia herrialde garatuetan  
57b) Miokardio-infartuak eraginiko hilgarritasuna handiagoa da emakumeetan gizonezkoetan baino  
57c) Alkoholaren kontsumoa arrisku kardiobaskularreko faktore argia da  
57d) Diabetikoek gaixotasun kardiobaskularrek eraginiko heriotza-arrisku handia dute

**58 ADIERAZI VHB-KO ZER MARKATZAILE ERABILTZEN DEN EMAKUME HAURDUNEN JAIO AURREKO AZTERKETAN.**

- 58a) Ag HBs.  
58b) Anti-HBc IgM.  
58c) Anti- HB core total.  
58d) Ag HBe.

**59 INFRADIAGNOSTIKO GARRANTZITSU BAT EGON ARREN, KALKULATZEN DA EAE-KO BIZTANLERIA HELDUAN (>24 URTE) EZAGUTZEN DEN 2 TIPOKO DIABETES MELLITUS-AREN PREBALENTZIA HAU IZAN DAITEKEELA:**

- 59a) % 4-5 artekoa  
59b) % 2tik beherakoa  
59c) % 9tik gorakoa  
59d) Bat ere ez da egiazkoa

**60 EPIDEMIOLOGIAN, ALDIZKAKO EDO URTAROKO ALDAKUNTZA DERITZANAK, ZER DIRA?**

- 60a) Ohikoak masa-fenomeno ugaritan
- 60b) Ia soilik infekzio-prozesuetakoak
- 60c) Meteorologia-fenomenoek eraginik daude
- 60d) a eta c egiazkoak dira

### ZATI TEORIKOAREN ORDEZKO GALDERAK

#### **61 ONDORENGO ALDAGAIETATIK, ZEIN AGERI BEHAR DA BETI CMBD-N?**

- 61a) Okupazioa
- 61b) Historia klinikoaren zenbakia
- 61c) E kodea
- 61d) Diagnostiko nagusia

#### **62 BATZUETAN, HERIOTZA-BULETINAK ERREGISTROETARAKO INFORMAZIO-ITURRI DIRA, HALA NOLA MINBIZIAREN ERREGISTROARENA. ZER ESAN NAHI DU HAIEN BITARTEZ EZAGUTURIKO KASU BERRIEN PORTZENTAJE HANDI BATEK?**

- 62a) Minbizia gaixotasun hilgarri dela
- 62b) Erregistroak kalitate txikia duela
- 62c) Beste informazio-iturriak eskasak direla
- 62d) Informazio-iturri osagarria dela

#### **63 ADIERAZI, ONDORENGO BAIEZTAPENETATIK, ZEIN DEN OKERREKOA, DOBLE ASTUNEKO METODOAN OINARRITURIKO DIETA-EGUNKARIAREN INGURUAN:**

- 63a) Balio konkretuak eskaintzen ditu (gramoak), ez zenbatespenak
- 63b) Ahalegin eta lankidetzaren borondate handia eskatzen du partaideen aldetik
- 63c) Metodoaren mugetako bat memoria-arazoketako suszeptibilitatea da
- 63d) Metodo horren eragozpenetako bat elikagaien ohiko hartzea aldaraztea eta are gutxitzea da

#### **64 OSASUN-INFORMAZIOKO SISTEMEN (OIS) BARRUAN, ERANTZUNAK SAR DITZAKEGU, HAU IZAN EZIK:**

- 64a) Bizi-estatistikak
- 64b) ABGak (adierazi beharreko gaixotasunak)
- 64c) Gaixotasun profesionalak
- 64d) Familia-plangintza

#### **65 BERROGEIALDIA (KOARENTENA). MUGITZEKO MUGA BATZUK DAUDE:**

- 65a) Soilik gaixoentzat
- 65b) Soilik eramaileentzat
- 65c) Soilik animaliei aplikatzen zaie
- 65d) Kutsatzeko arriskua duten pertsonena eta/edo animaliena, eramaileak izan edo ez

#### **66 ELGORRIA ERROTIK KENTZEA LORTZEKO, HIRUKOITZ BIRIKOA TXERTOAREN BI DOSI SARTU ZIREN, ETA BIEN ARTEKO PAUTA LABURTU ZEN. ZERTAN OINARRITZEN DA JARDUERA HORI?**

- 66a) 12-15 hilabete bitartean txertaturiko haurren % 5ek ez du serokonbertsiorik elgorriaren aurrean
- 66b) Seropositbitateen prebalentzia, txertoaren bigarren dosiaren ondotik, % 100era hurbiltzen da
- 66c) Pauta laburtzen denean, subjektu infektaberren pilaketa murriztu nahi da
- 66d) Guztiak egiazkoak dira

**67 PERLESIA FLAZIDO AKUTUEN (PFA) ZAINTZARI DAGOKIONEZ, EGIAZKOA DA:**

- 67a) Azken xedea da enterobirusak eraginiko infekzio-kasuak ezagutzea eta kontrolatzea
- 67b) EAEn, zaintza 2002. urtean hasi zen
- 67c) OMEren Europako Eskualdea poliomieltis basatitik gabeko eskualdetzat aitortu da
- 67d) Poliomieltisa errotik kentzeko ziurtagiria lortzeko OMEren baldintzen artean, poliomieltisaren aurkako estaldura-txertoak eskatzen dira, % 90etik gorakoak

**68 ZER DA KUTSATZAILEEN ATALASE-EFEKTUA DERITZANA?**

- 68a) Efektu itzulezina eragiten duten efektu txiki batuen pilaketa.
- 68b) Toxiko baten pilaketa, kantitate jakin batera iristen denean alderantzizko efektua eragiten duena
- 68c) Jardute-aldi jakin baten ondoren substantzia batek eragiten duen alderantzizko efektua
- 68d) Aldi berean 2 toxiko edo gehiagoren elkarrekintzak eraginiko alderantzizko efektua

**69 EAE-N, 1984 ETA 2006 ARTEAN, 5.399 KASU HIES AITORTU DIRA. KASU HORIEK GURE ERKIDEGOAN IZAN DUTEN EPIDEMIOLOGIARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ERANTZUN EZ-ZUZENA:**

- 69a) Transmisioko mekanismo ohikoena xiringen erabilera partekatua izan da bide parenteralezko drogen kontsumoan
- 69b) Transmisioko mekanismo ohikoena harreman heterosexual babestu gabeak izan dira
- 69c) Azkeneko hamar urteetan diagnostikatu diren ama-fetu transmisiozko GIH (VIH) haurtxoen kopurua nabarmen jaitsi da
- 69d) Azkeneko urteetan modu jarraituan hazi dira atzerritar biztanlerian diagnostikatu diren HIESeko kasuak

**70 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 4/2005 LEGEAK EZARRITAKO PRINTZIBIO OROKORRAK:**

- 70a) Euskal Autonomia Erkidegoko herri-aginteei bakarrik aplikatuko zaizkie.
- 70b) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari bakarrik aplikatuko zaizkie.
- 70c) Euskal Autonomia Elkarteko herri-erakundeetako batekin kontratuak edo lan-hitzarmenak dituzten edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak diren erakunde pribatuei bakarrik aplikatuko zaizkie.
- 70d) Euskal Autonomia Elkarteko herri-erakunde guztiei aplikatuko zaizkie; bai eta erakunde pribatuei ere ere, baldin eta Erkidegoko herri-aginteetako batekin kontratuak edo lan-hitzarmenak badituzte, edo herri-aginte horiek emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak badira.

**ARIKETA PRAKTIKOA**

***Hegazti-gripeak gaurkotasun nabarmena eskuratu du, AH5N1 birusa dela eta Asian sorturiko agerraldien eta hainbat herrialde eta kontinentetara izaniko hedapenaren ondorioz. Horrek guztiak, lehenengo aldiz denbora askoan, mundu mailako eta ustekabeko ondorioko gripe-pandemia berri baterako bilakaeraren arriskua plazaratu du.***

***Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) epizootiaren eta giza kasuen bilakaera monitorizatzen ari da Asiako hego-ekialdean eta Afrikan, eta pandemia arriskuaren ebaluazio etengabeko bat egiten.***

***Gai honi dagokionez, erantzun gaixotasun horri buruzko ondorengo galderei, kontuan hartuz, betiere, azaltzen diren berriarazko ataletan, gaur egun EAEn indarrean dauzkagun protokoloak:***

**GALDERAK**

- 71 PANDEMIAREN BILAKAERA ETA ARRISKUA PROTOKOLIZATU DU OME-K. GAUR EGUN, ETA AH5N1 BIRUSARI DAGOKIONEZ, ONDORENGO FASEETATIK ZEIN EZ DA BETE ORAINDIK?**
- 71a) Gripearen birus-subtipo berri baten agerpena eta hedapena
  - 71b) Ondo ondoko agerraldiak etxeko eta kortako hegaztietan
  - 71c) Infekzio hilgarriak ugaztunetan (katuak, txerriak, tigreak,...)
  - 71d) Pertsonatik pertsonarako transmisio eraginkor eta jarraitua
- 72 GRIPEAREN BIRUSAREN EPIDEMIOLOGIARI DAGOKIONEZ, ADIERAZI ERANTZUN ZUZENA:**
- 72a) Gripearen birusa *orthomyxoviridae* familiako RNA birus bat da, A eta B bi tipokoa
  - 72b) A tipoak gainazaleko glikoproteina batzuk ditu, eta, haietako bat, neuraminidasa funtsezkoa da arnas epitelioko zelulen bateratzean eta penetrazioan
  - 72c) B tipoko birusa da aldatzeko gaitasun handiena duena, eta epidemiologikoki arriskutsuagoa da
  - 72d) Urtero epidemiak izaten dira munduko bi hemisferioetan, antigenikoki desberdinak diren 3 edo 4 anduik eraginak
- 73 GAUR EGUN, GRIPEAREN ZAINKETA EPIDEMIOLOGIKORAKO INFORMAZIOKO SISTEMA EDO ITURRI ONENA ETA GURE ERKIDEGOAN ETA EUROPA MAILAN ERABILTZEN DENA HAUXE DA:**
- 73a) Ospitale-larrialdiak
  - 73b) Gripeak eraginiko heriotzei buruzko datuak
  - 73c) Medikuzko zehazkuntzen sareak
  - 73d) Sendagai antitermikoaren kontsumoa

- 74 ZURE ERKIDEGOAN GRIPEAREN URTEKO ZAINKETA EPIDEMIOLOGIKOTIK ERATORRIRIKO ABANTAILAK ETA URTERO IBILTZEN DIREN GRIPEAREN BIRUSAREN ANDUIAK IDENTIFIKATU BEHARRA JUSTIFIKATU BEHAR IZANGO BAZENITU, ADIERAZI, BALIZKO APLIKAZIOETATIK, ZURE USTEZ, ZEIN EZ DEN BALIODUNA.**
- 74a) Aldaketen detekzio goiztiarra gripearen birusetan eta andui antigenikoki berrietan  
74b) OMEren mundu mailako zainketako sareari datuak ematea, birus-tipo nagusiak ezagutzeko eta denboraldi epidemiko bakoitzeko gripearen kontrako txertoaren konposizioarako egokienak hautatzeko  
74c) B tipoko gripeko kasuak identifikatzea, amantadita bezalako farmako antibilaren erabilpen hobea ahalbidetzeko  
74d) Lehen kasuak detektatzean sorospen-estrategien plangintzari eta gizakietako isolamenduei laguntzea, eta urteko agerraldiaren intzidentzia handieneko puntari aurea hartzea
- 75 GAUR EGUN, OME-REN ALERTA PANDEMIKOAREN 3. FASEAN GAUDE. ADIERAZI, ONDORENGO HELBURUETATIK, ZEIN IZANGO LITZATEKEEN LEHENTASUNEZKOENA FASE HONETAN, OME-K ETA EZARRIRIKO EAE-N APLIKATURIKO PROTOKOLOEN ARABERA. ADIERAZI ZEIN:**
- 75a) Kasu susmagarrien detekzio eta jakinarazpen goiztiarra.  
75b) Gizakien arteko transmisio eraginkor eta iraunkorra dagoela baieztatzea  
75c) Birusaren transmisioa foku lokalizatu batzuen barruan biltzea edo birusaren hedapena atzeratzea, kontroleko beste neurri batzuk edukitzearen zain  
75d) Birusaren subtipo berriaren karakterizazio bizkorra segurtatzea
- 76 FASE HONETAN, H5N1 HEGAZTI-GRIPEKO KASU SUSMAGARRI BAT ZEHAZTEAK IRIZPIDE KLINIKO ETA EPIDEMIOLOGIKO BATZUK BETE DAITEZEN ESKATZEN DU. ADIERAZI, ONDORENGOEN ARTEAN, ORAINGO KASU-ZEHAZTAPENAREN ARABERA ZUZENA EZ DEN KASU BAT ZEHAZTEKO IRIZPIDE BAT:**
- 76a) Sukarra ( $\geq 38^{\circ}\text{C}$ ) edo sukar-historia eta arnas sintomak (eztula, arnas zailtasuna) edo azaldu gabeko arnas gaixotasun batengatik hiltzea.  
76b) Bidaien aurrekariak, sintomak hasi baino 7 egun lehenagokoak, OMEk arriskuko herrialdeetat harturiko aldeetako batera  
76c) Uretako hegaztien edo etxeko hegaztien presentzia masiboko eremu bat bisitatu izana  
76d) Arnas gaixotasun larriko edo zirkunstantzia berak direla eta azaldu gabeko heriotzako beste kasu batzuekin ukipen hurbila (elkar ukitzeko edo elkarri hitz egiteko distantzia) eduki izana
- 77 ERA BEREAN, H5N1 HEGAZTI-GRIPEAREN KASU BAIEZTATUAREN ZEHAZTAPENAK LABORATEGIKO PROBAK ESKATZEN DITU. ADIERAZI, ONDORENGOETATIK, ZEIN IZANGO LITZATEKEEN DIAGNOSTIKO BIZKORRAGO BAT LORTZEKO AUKERARIK EGOKIENA.**
- 77a) PCR positiboa A biruserako (H5N1)  
77b) Kultibo biral positiboa A biruserako (H5N1)  
77c) Immunofluoreszentzia positiboko testa H antigenoetarako (H5 antigenoa barne dela), H antigorputz monoklonalak erabiliz (H5 antigorputz monoklonalak dituztenak)  
77d) H antigorputz berariazkoen titulua 4 aldiz igotzea (H5 antigorputz berariazkoak barne direla) serum parekatuen laginetan, eta hegazti-gripearen birusak eraginiko infekzioa baieztatzea
- 78 OSAKIDETZAKO LEHEN MAILAKO ARRETAKO KONTSULTA BATEAN H5N1 GRIPEAREN KASUREN BATEN SUSMOA IZANEZ GERO, ETA PANDEMIAREN ORAINGO FASEAREN ARABERA, ADIERAZI, ONDORENGO ILDOETATIK, ZEIN EZ DEN EGIN BEHAR LEHEN MAILAKO ARRETAKO ZENTRO BATETIK.**

- 78a) Pazientea egoeraz informatuko duzu, eta maskara kirurgikoa eskainiko diozu ahoa eta sudurra estaltzeko
- 78b) Ahal izanez gero, kasu susmagarria eta haren senideak eremu, bulego edo itxaro-gela batean eduki, bereizirik
- 78c) Kasuarekin ukipenean dauden osasun-arloko langileka FFP2 arnasmaskarekin, eskularrekin eta betaurrekoekin babestu
- 78d) Diagnostikorako proba osagarri batzuk egiteko laginak hartu

**79 HEGAZTI-GRIPEKO KASU SUSMAGARRIAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN, ADIERAZI ZEIN IZAN BEHAR DEN ZAINKETA EPIDEMIOLOGIKOKO UNITATEKO EPIDEMIOLOGOEN LANA**

- 79a) Kasu susmagarriaren hasierako balioespina, presako lekualdatzea eta kasuaren harrera antolatzea hegazti-gripearen erreferentziako ospitaleko larrialdi-zerbitzuan
- 79b) Kasua Osasun Publikoko Zuzendaritzari jakinaraztea.
- 79c) Kasuaren komunitate-ukipenen segimendua egitea, horrelakorik badago
- 79d) Aurreko erantzun guztiak egiazkoak dira

**80 ORAINGO FASEAN, H5N1 HEGAZTI-GRIPEKO KASU BAIEZTATU BATEN AURREAN, ZEIN IZANGO LITZATEKE TRATAMENDU EDO PROFILAXI ONENA, ONDORENGOEN ARTEAN?**

- 80a) Isolamendua eta euskarriko tratamendua (hidratazioa, antitermikoak, etab.)
- 80b) Aurreko puntuari gripearen kontrako txertoaren dosi bat eranstea
- 80c) Isolamendua, euskarriko tratamendua eta oseltamivir-ekiko tatuamendua hasi
- 80d) Aurreko puntuari pneumokokoaren aurkako txerto polisakarikoaren dosi bat eranstea